

**IRAKASKUNTZA PROFESIONALEKO
ZENTROA**

MUSIKA ESKOLA



Bilboko Koral Elkarte
Sociedad Coral de Bilbao

Arauen Liburua

2017 / 2018

IKASTURTEA

Bilboko Koral Elkartearen Musika-Ikastegia aitzindaria izan da, izan ere eskaintzen duen irakaskuntzaren berezko izaera definitzen duen proiektu pedagogiko bat garatu du, musika irakaskuntzaren azken erreformei aurrea hartuz.

Definitzen gaituen berezko izaera hau bat dator musika irakaskuntzak, gure ustez, izan behar duenarekin, ikaslearen garapen integralaren atal garrantzitsua baita. Labur egin nahi dugunez zaila izan daitekeen arren, proiektu honetako funtsezko puntuak agertu nahi ditugu laburbildurik:

1.) Gure eremuan, 3 urtetik aurrera Musika Hastapenerako Tailerretan hasten diren haurrak Musika-Eskola. Oinarrizko Maila eta Irakaskuntza Profesionalak, ia ezinezkoa eta erabat desegokia da zehaztea aurrerantzean zein ikaslek jardungo duen musika profesionari eta zeinek izango duen musika zaletasun edo kultur mailarako ekarpen eta aisialdirako aukera apart. Horregatik, Zentro gisa, ikasleak aurrerantzean aukera bat ala bestea hauta dezan ahalbidetuko dion musika trebakuntzarako oinarri sendoa eskaini beharra daukagu.

2.) Aurrekoa kontutan hartuz, ondoriozta daiteke gure Zentroan ikasketak egin nahi dituzten ikasleek Zentroak maila bakoitzerako ezartzen duen ikasketa-egitaraua onartu behar dutela; halaber, beharrezkoa da egitarau hori garatzeko prestutasun eta denbora nahikoa egotea. Ikasleek eta hauen gurasoek aurretiaz jakin behar dute jarraian garatzen den lan egitarau indibidualik gabe ezinezkoa dela maila nahikoa hartzea.

Horrela gertatzen ez denean, ikaslea zama bilakatzen da ikaskideentzat taldeko eskoletan eta arazo larri eskola indibidualetako musikatresna irakasleentzat. Musikatresnari eskola bat eta bestearen artean egunerokotasunik eskaintzen ez bazaio, azken hau alferreko bihurtzen da eta, aldi berean, gurasoentzako alferreko gastu eta irakasleentzat etsipen, ezin baituzte ikasturte hasieran zehaztutako helburuak era egokian garatu.

3.) Musikatresnako eskola eta Musika Lengoiako garrantzi handia daukatela kontutan hartuz, ezinbestekotzat jotzen ditugu taldekako musika praktikak. **Praktika hauek dira gure sistema pedagogikoaren ardatza.** Gure ustez, haurrak txikitatik eduki behar du musika bizipen aktiboa, eta honetan, musika taldeka interpretatzea ezinbestekoa da; izan ere, haurrari musika fenomenoaren atalik erakargarriena ukatzen badiogu eta atal teknikoa baino eskaintzen ez badiogu, harrarengan, trebakuntza okerraz gain, musika ikasketekin aurrera egiteko arbuio osoa eragingo dugu.

Musika jarduera hau gure Ikastegian musika-tresna eta ahots taldeen bidez garatzen da.

Ikastegiak erabakiko du ikasle bakoitza bere gaitasunen arabera egokiago deritzon abesbatzan edota orkestran kokatzea.

Hori dela eta, ez ditugu onartuko, denborarik eza, egoitza urrutik eduki edo beste edozein arrazoi dela eta, Taldeko musika praktika hauek burutu ezin dituzten ikasleen matrikulak.

4.) Guraso eta ikasleekin harreman zuzena izatea oso garrantzitsua dela uste dugu, horrela gurasoak beti jakinaren gainean egonik, seme-alaben musika heziketan aktiboki parte hartzen baitute. Horretarako, irakasle bakoitzak ordutegi zehatza dauka gurasoei arreta egiteko. Ez da inondik inora onartuko gurasoek eskola-ordutan edo irakasleen atsedendietan hauengana jo dezaten.

5.) Zentroak antolatzen dituen mota guztietako entzunaldi eta kontzertuak oso garrantzitsuak dira pedagogiaren ikuspuntutik, izan ere, ikaslea prestatu eta jendaurrean jarduteko behar duen diziiplina eskaintzen baitiote. Horregatik, erabat derrigorrezkoak dira, irakasleak edo Zentroak berak hala adierazten badu.

6.) Ikasturte hasieran, matrikulazio ordenaren arabera, ikasle bakoitzak bere ordutegia zehaztuko du eta ordutegi hau hertsiki errespetatuko da; irakasleek ahal den neurian eskolak errekuiperatuko dituzte, beti ere galtzearen zioa irakaslearen beraren ezintasun edo Zentroaren beraren musika jarduerak eragindakoren bat baldin bada.

7.) Gure Zentroan, araupeturiko eskaintzaz gain, araupetu gabeko irakaskuntza ere eskaintzen da Musika-Eskolan. Honakoak, kalitate eta seriotasun pedagogikoari eutsiz, ikasleak era atseginagoan ikas dezan ahalbidetzen du, mailak lortzeko denbora gehiago daukalako eta dedikazio txikiagoa exigitzen zaiolako. Hala ere, taldeko klaseetan asistentzia eta parte hartzea guztiz beharrezkoa da. Arau honen hausteak gure zentrotik at geratzea ekarriko luke.

**MATRIKULA EGITEKO eta
ORDUTEGIA AUKERATZEKO PROZEDURA:**

8 URTE ARTEKO IKASLEAK (Tailerra)

1. Matrikula egiteko egunak eta ordutegia:

Maiatzaren 26an, ostirala: 9:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara.

Maiatzaren 29an eta 30ean, astelehena eta asteartea: 9:30etik 13:30era.

2. Ikasle Berrien onarpena: **Ekainaren 5ik aurrera.**

3. Ordutegia aukeratzea: **Izena emateko unean, musika-tresnen hastapena izan ezik, berau irailaren 20an aurrera egingo delako.**

4. Musika-tresnen hastapeneko ordutegien aukeraketa:

- Ordutegia aukeratzeko lehenak aurreko ikasturtean Musika-Tresnen Hastapena ikasi dutenak izango dira. Tailerrera izen-ematearen zerbakiaren arabera egingo dute.

- Jarraian Musika-Tresnen Hastapena lehen aldiz egin behar duten ikasleek aukeratuko dute ordutegia. Kasu honetan ordena Tailerraren mailen desberdinen arabera izango da: II. maila hasiko da, gero, I. maila-3. modulua eta azkenik I. maila-2. modulua. Txanda bakoitzean, noski, izen-ematearen zerbakiaren arabera jokatu da.

- Gogoratu behar dugu instrumentu-hastapenerako eskaera egiteak ez duela plaza bermatzen.

TAILERREAN IZENA EMATEKO TASAK:

• Musika-hastapena	53,00 €
• Musika-tresnen hastapena	43,00 €

**8 URTETIK GORAKO IKASLEENTZAT
(Irakaskuntza Arautua eta Ez Arautua)**

1.- Ordutegien aukeraketa ordena alfabetikoaren arabera eginga da, hasierako letra zozketa bate bidez ebatzi ondoren.

2.- Izena emateko epea: **Ekainaren 14tik 19ra arte.**

3.- Matrikula egiteko ordutegia:

Astelehenetik ostegunera: 9:30etik 13:30era.

Ostiralean: 9:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00 etara.

4.- Adieraziko epean paperak ez aurkezteak deiturari dagokion ordena galtzea ekarriko du.

5.- **Ekainaren 22tik 29ra, Bilboko Koral Elkartearen egoitzako Idazkaritzara hurbilduta edo telefonoz deituta, bulego ordutegiaren barruan (**9:30-13:30 eta 16:00-19:00**). Irailean ordutegiak aukeratzeko dagokizuen zerbakia emango zaizue.**

6.- Irakaskuntza Profesionaletako 5. eta 6.ean matrikulatutako ikasleek ordutegia aukeratu dute irailaren 4an, telefonoz deitu gabe, ez bada gauditu gabeko ikasgai bat daukatela edota aldi berean Musika-Eskolan ere ikasten ari direla.

Beste ikasle guztiak, helduak izan ezik, **irailaren 4an hasiko dira ordutegia aukeratzeko**, emandako zerbakiaren ordenaren arabera. **Helduek irailaren 26tik aurrera ordutegia aukeratu dute.**

7.- Ordutegiaren aukeraketa ezin izango da egin ez telefonoz, ez postaz, soilik bertara joanez egin ahal izango da.

IZENA EMATEKO TASAK:

ONARRIZKO MAILA	75,00 €
IRAKASKUNTZA PROFESIONALAK	80,00 €
MUSIKA ESKOLA: Espezialitate bakoitzeko.....	65,00 €

1)- Inskripzioa betetzeko honakoa ekarri beharko da:

- **Inskripzio Orriaren** jarraibideak jarraiki.
- Zure bankuko datuetan aldaketarik egon bada, **baku-kontuaren zenbakiaren fotokopia** IBANarekin.
- **NANaren fotokopia**, zure zenbakia ematen dugun Inskripzioaren orrian agertzen ez bada.
- **Kide Ugariko Familiakoak** direla egiaztatzen duten ikasleek matrikula-salneurrian hobaria edukiko dute.
- **Burututako azken ikasturteko azterketa-orriaren fotokopia.** (Zentrotik kanpo burutu bada eta alde zurretik ekarri ez bada.)
- Arauzko Ikasketak egiten dituzten ikasleek, **Ikasketa-Espedientea** ekarri beharko dute beste zentro batetik badatoz.

2)- Inskripzioaren prezioa, ikasturteko materiala eta eskola-asegurua barne, **BBK IBAN: ES81 2095 0100 00 3800072443** kontuan ordaindu beharko da, inskripzioarekin batera bikoizkina aurkeztuz.

2017-2018 IKASTURTEAREN HASIERA
Irailaren 11n (musika-tresnen hastapenak eta helduen
ikasketak urriaren 2an hasiko dira)

ARAU OROKORRAK

1. Bilboko Koral Elkarteko ikasleek bazkideak, bazkideen lehen mailako senideak edo koraleko taldekide eginkorrek izan behar dute.
2. Eskolaratzeagatiko zenbateko guztiek Banku edo Aurrezki Kutxan helbideraturik egon beharko dute. **Agiriak itzultzeagatiko gastuak ordainketan gehituko dira.**
3. Edozein ikasgaitan baja hartzeko berori idatziz jakinazari beharko da Idazkaritzan, berori gertatu baino **bi hilabete lehenago.**
4. 2017-2018 ikasturtean eskolaratzeagatiko zenbatekoen 10 hilabeteko oso helaraziko dira (9 helduen kasuan).
5. Zentroak beretzat gordetzen du ikasle berriei onarpen frogak egiteko eskubidea.
6. Zentroko ikasle guztiek Zuzendaritzak jarduera osagarri, entzunaldi, kontzertu, e.a. direla eta, ezarriko dituen jarraibideak segitu beharko dituzte.

7. Ikasle guztiek derrigor hartu behar dute parte taldekako musika praktiketan, hauek Ikastegiak egoki deritzon orkestra edota abesbatza taldean burutuko dira. Entseiu eta kontzertuetara jarraikortasunez agertzea ezinbestekoa izango da Zentrotik at ez geratzeko.
8. Irakaskuntza araupetutik araupetu gabekora aldaltzeak araupetutakoaren matrikula-jarraikortasuna galtzea dakar.

DATUEN BABESA

Abenduaren 13ko Norberaren Datuak Babesteko 15/1999 Lege Organikoan xedatutakoaren arabera, jakinarazten dizugu formulario hau bete ondoren lortutako datuak BILBOKO KORAL ELKARTEAren fitxategi batean gordeko direla, ikastegiko antolaketa eta kudeaketa erraztearren. Aipatu datuak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren esku jarriko dira legezko ondorioetarako.

BILBOKO KORAL ELKARTEAK Ikastegiko ikasleak agertu edota jarduten direneko irudi edota soinu-artxiboak sortu ahal izango ditu, beti ere hauek ikasketei lotutako ekitaldiei badagozkie.

Datuei buruzko atzipen, zuzenketa, deuseztapen eta aurkaritza eskubideak baliatzeko, idatziz helbide honetara jo beharko duzu: BILBOKO KORAL ELKARTEA, Felipe Serrate 2, 48013 Bilbo.

Ondoren agertzen den dokumentuan sinatzean berariaz baimena ematen duzu zeure datu pertsonalak aurreko lerroaldeetan jakinarazitakoaren arabera erabiltzeko.

TALLER DE INICIACIÓN MUSICAL (3 a 7 años)
MUSIKA-HASTAPEN TAILERRA (3 urtetik 7 urtera)

NIVEL 0 (3 años)

ESCUELA DE MÚSICA - MUSIKA ESKOLA

NIVEL 1 CONTACTO (de 4 a 6 años)

Módulo 1 Taller

Módulo 2 Taller + optativa iniciación instrumental

Módulo 3 Taller + optativa iniciación instrumental

NIVEL 2 INICIACIÓN (7 años)

Módulo de iniciación musical: Taller + coro + optativa iniciación instrumental

ESCUELA DE MÚSICA (a partir de 8 años sin límite de edad)
MUSIKA ESKOLA (8 urtetik aurrera adin mugarik gabe)

NIVEL 2 INICIACIÓN

6 módulos

Rama instrumental (instrumento + práctica de conjunto), rama canto coral, lenguaje musical

NIVEL 3 AFIANZAMIENTO

6 módulos

Rama instrumental (instrumento + práctica de conjunto), rama canto coral, rama canto solista

NIVEL 4 ACTIVIDAD PREFERENTE

Sin límite de módulos

Rama instrumental (instrumento + práctica de conjunto) y rama canto coral

ADULTOS - HELDUAK

Siguen el plan de estudios de la Escuela de Música: niveles 2, 3 y 4. Además pueden elegir:

Asignaturas complementarias

- Musika Bizi
- Lenguaje musical
- Aula de cultura musical

ENSEÑANZA REGLADA (a partir de 8 años)
IRAKASKUNTZA ARAUTUA (8 urtetik aurrera)

GRADO ELEMENTAL – OINARRIZKO MAILA

1º Y 2º

- Lenguaje musical + instrumento + coro

3º Y 4º

- Lenguaje musical + instrumento + coro + práctica instrumental

GRADO PROFESIONAL – GRADU PROFESIONALA

1º Y 2º

- Lenguaje musical + instrumento principal + instrumento complementario
- Banda, coro, orquesta, conjunto, repertorio con pianista acompañante (*)

3º Y 4º

- Armonía + instrumento principal + instrumento complementario
- Conjunto, música de cámara, banda, orquesta, acompañamiento, repertorio con pianista acompañante (*)

5º Y 6º

- Análisis + instrumento principal + historia de la música + música de cámara
- Orquesta, acompañamiento, repertorio con pianista acompañante(*)
- Optativas: repertorio de instrumento principal, técnicas de estudio

(*) En función del instrumento principal